

FERNAND BONNEURE.—*Brugge beschreven. Hoe een stad in teksten verschijnt.* Elsevier Brussel, 1984.

Liburu honetan literatura lanetan Brujas hiriari buruz edo bertako pasartez agertzen diren testu zatiak biltzen dira. Gehiena danesetikakoa bada ere, Europako zenbait hizkuntzatatik jasoak daude eta ez da falta idazle ospetsurik ere: Dante Rossetti, Victor Hugo, Barrés, Zweig, Zuckmeyer, Mallarmé, Baudelaire, Yourcenar, Gezelle, Hugo Claus, Rilke, Paul Claudel eta abar.

Idea ona izan da F. Bonneure delakoarena, orainarte bidaia liburuetatik soilik egiten ziren holako bildumak eta honak literaturazko testuetatik harturik egin bai du.

Ohi ez bezalako liburu hau, ongi inprimatua dator, luxoz, eta bere 200-207 orrialdeetan Federico Krutwig-en *Errotan Burgiko mystêria* deritzan eleberritik hartutako testua dakar, *Biskaiersplein* (Bizkaitarren plaza) eta hiriko gazteluaren arteko kaleak eta azti-sinboloziaz eta sineskeraz ematen dituen zatiak.

*Egan*-en aurreko zenbakian aurkeztu genuen Krutwig-en liburu hori. Itzulpenak ulermenerako kalterik ez ziola egingo iduritzen zaigu.

On dira holako lanak gure hizkuntza eta kulturaren zabal-kunderako.